

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako lurralde ordezkari-tza

2022ko laneko jaiegunen egutegia

Ebazpena, 2021eko uztailaren 12koa, Lan eta Enplegu Saileko Arabako lurralde ordezkaria-rena, 2022rako Araban tokiko jaiegunak ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzak, maiatzaren 4ko 132/2021 Dekretuaren bidez (2021eko maiatzaren 20ko EHAA), honako hau onartu du: 2022. urtean, igandeez gain, hamabi egun baliogabe egotea lan-ondorioetarako.

Hona hemen hamabi egun baliogabe horiek:

Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.

Urtarrilaren 6a, Errege Magoen eguna.

Apirilaren 14a, Ostegun Santua.

Apirilaren 15a, Ostiral Santua.

Apirilaren 18a, Pazko Astelehena.

Uztailaren 25a, Santiago Apostolua.

Abuztuak 15a, Ama Birjinaren Jasokundea.

Irailaren 6a, Juan Sebastian Elkano kapitain zela munduari bira eman izanaren V. mendeurrena.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna.

Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.

Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

Lan eta Gizarte Segurantzako lurralde-ordezkaria eskuduna da honakoa ezartzeko: lurralde historikorako lanerako bi egun baliogabe, ordainduak eta erreku-peratu behar ez direnak, tradizioz tokiko festak izan ohi direnak. Horretarako, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposamena egin behar izan dute aurretik. Hori guztia, Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 5eko 134/2005 Dekretuaren 2. artikuluan eta urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.f artikuluan ezarritakoaren arabera. Azken horrek Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen du.

Udalekin egin beharreko kontsulta egin eta gero, honako hau,

Ebazten dut

Lehena eta bakarra. Arabako Lurralde Historikoan, 2022rako tokiko eremuko bi jaiegunak, ordainduak eta errekuperatu behar ez direnak, lan-ondorioetarako lan baliogabetzat hartzen direnak, hauexek izango dira:

Arabako jaieguna

apirilaren 28a

Toki mailako jaiegunak

Agurain	ekainaren 24a	(Done Joane)
Aiara		
Agjiñaga	uztailaren 26a	(Done Jakue)
Añes	maiatzaren 21a	(San Ramiro)
Arespalditza	maiatzaren 16a	(San Isidro)
Beotegi	irailaren 29a	(Done Mikel)
Erbi	maiatzaren 3a	(Gurutzea)
Etzegoien	maiatzaren 9a	(Antiguako Ama)
Izoria	urtarrilaren 7a	(Done Julian)
Kexaa	abuztuaren 5a	(Elurretako Andra Maria)
Lexartzu	abenduaren 9a	(Sortzez Garbiaren eguna)
Luxo	abuztuaren 16a	(Jasokundearen eguna)
Luiaondo	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Llantenó	uztailaren 26a	(Done Jakue)
Madaria	azaroaren 23a	(San Klemente)
Maroño	urtarrilaren 17a	(San Anton)
Menagarai	ekainaren 29a	(Done Petri)
Menoio	apirilaren 25a	(San Marko)
Murga	ekainaren 24a	(Done Joane)
Olabezar	urtarrilaren 24a	(San Babilas)
Opellora	irailaren 29a	(Done Mikel)
Ozeka	urriaren 8a	(Errosarioko Andra Maria)
Retes de Llantenó	uztailaren 22a	(Magdalena eguna)
Salmantón	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Soxo	abuztuaren 30a	(Done Meteri)
Zuhatza	uztailaren 18a	(Dona Marina)
Alegria-Dulantzi	otsailaren 3a	(San Blas)
Amurrio	abuztuaren 16a	
Añana	uztailaren 11	(Done Kristobal)
Aramaio	uztailaren 4a	
Armiñón	azaroaren 30a	(San Andrés Apostolua)
Arraia-Maeztu	ekainaren 20a	
Arratzua-Ubarrundia	abenduaren 26a	(San Esteban)
Artziniega	irailaren 8a	(Arteako Andra Maria)
Asparrena	ekainaren 29a	(Done Petri Apostolua)
Barrundia	ekainaren 24a	(Jon Deuna)
Bastida	Esker Oneko 2. eguna	
Berantevilla	irailaren 8a	(Jasokundearen eguna)
Bernedo	irailaren 8a	
Bilar	abuztuaren 16a	(San Roke)
Burgelu	ekainaren 29a	(Done Petri)

Donemiliaga	azaroaren 11	(Done Milian)
Elciego	irailaren 8a	(Plazako Andra Maria)
Erribera Beitia	abuztuaren 29a	
Erriberagoitia	maiatzaren 16a	
Eskuemaga	azaroaren 30a	(San Andres)
Gaubea	maiatzaren 16a	
Harana	ekainaren 24a	
Iekora	abuztuaren 19a	(Berzijanako Andra Maria)
Iruña Oka	abuztuaren 16a	(San Roke)
Iruñiz-Gauna	ekainaren 24a	(Done Joane)
Kanpezu	maiatzaren 16a	
Kripan	irailaren 8a	
Kuartango	ekainaren 24a	
Lagran	abuztuaren 24a	
Laguardia	ekainaren 24a	(San Joan)
Lantziego	irailaren 8a	(Landako Andra Maria)
Lantarón	irailaren 16a	(Done Kornelio eta Done Zipri)
Lapuebla de Labarca	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Laudio	abuztuaren 16a	(San Roke)
Legutio	irailaren 12a	(Kofradiak)
Leza	abuztuaren 16a	(San Roke)
Mañueta	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Moreda Araba	abuztuaren 19a	(Esker Onak)
Navaridas	ekainaren 2a	(Done Joane Ortegakoa)
Okondo	abuztuaren 24a	(Done Bartolome)
Oyón-Oion	urtarrilaren 22a	(Bikendi eta Anastasi Santuak)
Peñacerrada-Urizaharra	maiatzaren 16a	
Samaniego	irailaren 8a	(Haranako Andra Maria)
Urkabustaiz	urriaren 3a	
Vitoria-Gasteiz	abuztuaren 5a	(Andra Mari Zuria)
Zalduondo	ekainaren 11	
Zambrana	abuztuaren 5a	
Zigoitia	abuztuaren 5a	
Zuia	irailaren 29a	(San Migel)

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 12a

Arabako lurralde ordezkaria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE